

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

##### Garapenerako Lankidetzak

#### Ebazpena, 2024an garapenerako lankidetzak-proiektuei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdiko US (ura eta saneamendua) atalekoa

2024ko martxoaren 15ean onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an garapenerako lankidetzarako proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia, bost ataletan banatuta. US atala honela dago definituta:

b. US atala. bi urteko (2023-2024) ur- eta saneamendu-azpiegitura eta -sistemen proiektuak bukatzea. Zuzkidura ekonomikoa: 410.000,00 euro (200.000,00 euro AMVISAren ekarpenaren kontura eta 210.000,00 euro Gasteizko Udalaren ekarpenaren kontura).

Deialdian laguntza norgehiagoka emateko prozedura zehazten zen. Gainera, 24.8 artikulua-  
ren arabera, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 140.000,00 eurokoa izango da proiektu bakoitzeko.

US atalari 410.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

– Batetik, 200.000,00 euro, Vitoria-Gasteizko Udala Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura (enpresaren administrazio-kontseiluak 2024ko otsailaren 8an onetsitako ekarpena). AMVISAren ekarpena uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen US atalera eta ez bestetara bideratuko da.

– Bestetik, 210.000,00 euro, udal aurrekontuko 2024 2391 2450,2391 48200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" partidaren kontura.

2024ko irailaren 16an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea. Guztira, hiru (3) proposamen aurkeztu ziren, garaiz eta behar bezala, ondorengo taulan jasota daudenak (guztira 400.000,00 euro osatzen dute):

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA
Nazioarteko Elkartasuna	Ura izateko giza eskubidea Saala N'Douyèhè eta Hérico inguruetan, Labé eskualdean	Ginea	140.000,00
Euskal Herriko San Viator - Elkartasun Zerbitzua	Edateko ura Piedras Amarillas komunitatean, Jutiapako departamentuan (Guatemala)	Honduras	130.000,00
Alboan Fundazioa	Ura, bizitzaren berme: ura izateko giza eskubidearen bermea Guacarí udalerriko (Cauca ibaiaren harana) landa-komunitatetan	Kolonbia	130.000,00
<b>Eskatutakoa, guztira</b>			<b>400.000,00</b>

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko lantalde teknikoko hiru pertsonak osatutako batzorde tekniko batek berrikusi eta ebaluatu ditu US atalera aurkeztutako 3 proposamenak.

Eskabide bakoitzeko fitxa bat egin da, eta bertan jaso da proiektuaren balioespena, oinarrien 3. eranskinean adierazitako baremazioari jarraiki.

Puntuazio hauek lortu dituzte proiektuek:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PUNTUAZIOA (100 PUNTUREN GAINEAN)
Nazioarteko Elkartasuna	Ura izateko giza eskubidea Saala N'Douyèhè eta Hérico inguruetan, Labé eskualdean	Ginea	84,00
Euskal Herriko San Viator-Elkartasun Zerbitzua	Edateko ura Piedras Amarillas komunitatean, Jutiapako departamentuan (Guatemala)	Honduras	74,88
Alboan Fundazioa	Ura, bizitzaren berme: ura izateko giza eskubidearen bermea Guacarí udalerriko (Cauca ibaiaren harana) landa-komunitatetan	Kolonbia	73,50

Deialdian zehazten denez, ezin izango dira diruz lagundu guztira ehuneko 50etik beherako puntuazioa lortu duten proiektuak (12.11 oinarria), baina proposamen guztiek lortu dute ehuneko 50eko edo hortik gorako puntuazioa. Beraz, 3 proposamenak zenbatetsi dira, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

US atal honetarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa 410.000,00 eurokoa da, eta baloratutako hiru proposamenen guztizko zenbatekoa 400.000,00 eurokoa.

Horrenbestez, dirulaguntza hauek ematea proposatzen da:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PROPOSATUTAKO DIRULAGUNTZA		GUZTIRA
			UDALA	AMVISA	
Nazioarteko Elkartasuna	Ura izateko giza eskubidea Saala N'Douyèhè eta Hérico inguruetan, Labé eskualdean	Ginea	70.000,00	70.000,00	140.000,00
Euskal Herriko San Viator-Elkartasun Zerbitzua	Edateko ura Piedras Amarillas komunitatean, Jutiapako departamentuan (Guatemala)	Honduras	65.000,00	65.000,00	130.000,00
Alboan Fundazioa	Ura, bizitzaren berme: ura izateko giza eskubidearen bermea Guacarí udalerriko (Cauca ibaiaren harana) landa-komunitatetan	Kolonbia	65.000,00	65.000,00	130.000,00
<b>Eskatutakoa, guztira</b>			<b>200.000,00</b>	<b>200.000,00</b>	<b>400.000,00</b>

Kontuan hartu dira Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren zeregina eta helburu estrategikoak.

Kontuan hartu dira, batetik 2024an garapenerako lankidetzaproiektuei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailak idatzia, eta, bestetik, eskabideen balorazio-txostena, 2024ko urriaren 9koa Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak aurkeztua.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Nazioarteko lankidetzaren esparruko dirulaguntza eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak, Dirulaguntzak arautzeko Udalaren Ordenantza aintzat hartuta, eta eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2023ko ekainaren 22an emandako dekretua; eta horien arabera, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena.

2024. urterako garapenerako lankidetzarako dirulaguntzen deialdiko US ataleko hiru proposamen hauek diruz laguntzea, 2024/2450.2391.48200 aurrekontu-partidaren eta AMVISAren ekarpenaren kontura, zenbateko hauekin:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PROPOSATUTAKO DIRULAGUNTZA		GUZTIRA
			UDALA	AMVISA	
Nazioarteko Elkartasuna	Ura izateko giza eskubidea Saala N'Douyèhè eta Hérico inguruetan, Labé eskualdean	Ginea	70.000,00	70.000,00	140.000,00
Euskal Herriko San Viator-Elkartasun Zerbitzua	Edateko ura Piedras Amarillas komunitatean, Jutiapako departamentuan (Guatemala)	Honduras	65.000,00	65.000,00	130.000,00
Alboan Fundazioa	Ura, bizitzaren berme: ura izateko giza eskubidearen bermea Guacarí udalerriko (Cauca ibaiaren harana) landa-komunitatetan	Kolonbia	65.000,00	65.000,00	130.000,00
<b>Eskatutakoa, guztira</b>			<b>200.000,00</b>	<b>200.000,00</b>	<b>400.000,00</b>

#### Bigarrena.

Ebazpen honen ondorioz, 10.000,00 euroko soberakina sortzen da 2024/2450.2391.4.8200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" udal-aurrekontuko partidari. Soberakin hori, deialdian adierazitakoaren arabera, aurrekontua aldatzeko dagokion espedientearen bidez esleituko zaio 2024/2450.2391.48205 Arabako Larrialdietarako Funtsaren Hitzarmenari.

#### Hirugarrena.

Aipatutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agintzea, hala agintzen baitu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua, bertan datu hauek adierazita: onuradunak, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 13. artikuluan eskatutako gainerako informazioa. ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta udal webgunean ere [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) argitaratu beharko dira.

Erabaki honen kontra errekurtso hauek aurkez daitezke:

– Berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta, hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik. Errekurtso horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

– Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

– Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 9an

*Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria*  
**MERTXE BAREA**